

2026MDIR0001

BUZTIN ATE ELKARTEAREN ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA 2026

HITZARMENA: BUZTIN ATE BUZTINGINTZA ELKARTEA ETA ESKORIATZAKO UDALA

Eskoriatzan, azken sinadura elektronikoaren datan.

BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udaleko Alkate-Udalburua.

ETA BESTETIK, Olatz Pagalday Ruiz de Eginu anderea, Buztin Ate Buztingintza elkarteko lehendakaria.

PARTE HARTZEN DUTE

Edorta Zubizarreta Alegria jaunak **ESKORIATZAKO UDALAREN** izenean eta ordezkartizan.

Olatz Pagalday Ruiz de Eginu anderea, Buztin Ate Buztingintza elkartearen izenean eta ordezkartizan, helbidea Eskoriatzan, Gaztañadui kaleko 29am duena, IFK: G75166165 eta Eusko Jauriaritzako elkartean erregistroan AS/G/20384/2016 zenbakiarekin inskribatuta dagoena.

Alde biek kontratu hau egiteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Buztin Ate buzingintza elkarteak 2016an sortu zen irabazi asmorik gabeko elkarte pribatua da, eta ordutik, zeramika aktibitatea praktikatzera, sustatzera eta hedatzera bideratu du bere jarduna.

Buztin Ate buzingintza elkarteak 50 bazkide inguru ditu gaur egun.

Bere jarduerara herritar guztiei zuzenduta dago, eta ahalegin berezia egiten dute zeramika tailerrak eta informazioa eskaintzeko emakumeei, umeei eta gaitasun ezberdinak dituzten taldeei.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arazoak behar moduan egiaztatu ditu elkarteak eta Gaztañadui kaleko 29. zenbakiaren behe solairuan dagoen Zubiateko labearen lokala erabiltzen du bere jardunerako elkarteak.

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundearen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Eskoriatzako Udaleko 2026ko aurrekontuetan Buztin Ate buzingintza elkartearentzako 1.000 euroko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dutela.



BALDINTZAK

LEHENENGOA.-HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da 2026ko ekitaldiko udal aurrekontuan Buztin Ate buztingintza elkartearen izenean dagoen dirulaguntza izenduna antolatzea, elkarteak 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Buztin Ate zeramikaren artea bultzatzen, transmititzen, sustatzen eta Eskoriatzako herritarrei modu praktikoan eta parte hartzailean zabalitzen aritzen da.

Hori guztiori egiteko zeramika ikastaroak antolatzen ditu urritik ekainera, eta bertan, kultur sorkuntzarako ereduak gure herrian finkatzen laguntzen du. Jende guztiari zuzenduta daude, adinari begiratu gabe, baina, normalean gutxienezko adin bat jartzen dute gaztetxoentzat (+6).

Ikastaroetan Euskal Herriko eta, bereziki, Eskoriatzako kulturaren baloreak eta historia transmititzen dituzte, izan ere, Eskoriatzan dago XIX. mendeko labea, Eusko Jaurlaritzak kultur intereseko ondasun bezala sailkatuta duena, eta gainera, Gipuzkoan gordetzen den bakarra, jarduera antzinatik egiten dela eta gure herriko bizibideetako bat izan zela erakusten duena.

Ikastaroek gain, urtean zehar Eskoriatzarrentzat hainbat tailer eta erakusketa eskaintzen dituzte, euskaraz.

Ikastaroak honela antolatuta daude:

Asteartetan eta asteazkenetan arratsalde:

- Haurrak: 16:45etik 17:45era.
- Helduak: 18:00etatik 20:00etara.

Asteazken goizetan:

- Helduak: 11:00etatik 13:00etara

Egutegia:

- Helduak: 2025/09/01etik 2026/06/17ra.
- Haurrak: 2025/09/30etik 2026/06/17ra.

Ikastaroak aurrera eramateko behar duten materiala

- Zeramika tornu elektrikoak.
- Buztina landu eta zeramika piezak egiteko tresnak eta lanabesak; hau da, prozesu osorako, buztinetik hasi eta zeramika margotu eta egosteraino.
- Buztina.
- Esmalteak, engobeak, (hauek prestatzeko gailuak). Lanak egosteko labea.
- Lanak egosteko labea.
- Margotze prozesua. Pintzelak, brotxak...
- Piezak lagatzeko apalak.
- Laminadora.

Proiektua zabalteko erabiltzen dituzten baliabideak

- Ikastaroak iragartzeko kartelak, horretarako egokitutako lekuetan jarrita, Eskoriatzan eta bailaran.
- Zeramika tailerra eta ikasleek egindako piezekin erakusketa.
- Herritarrentzat ekintzak: familientzat Gabonetako apaingarrien tailerra, Km 0 azoka,



monografikoak...

- Eskoriatzako plazan. Bertaratutako jendeak aukera izan zuen buztina eskuz zein tornuz lantzeko.
- Ferixian egoten dira urtero.
- San Pedro jaietan erakusketak.
- Museora bisitak eta ondorengo tornu erakusketa eta buztin tailertxoak, urtean 3 alditan.
- Buztin Ate elkartearen 10. Urteurrena dela eta, agian urrian herritarrentzat jai bat egiteko dute.

BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK.

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du gehienez ere 1.000 euroko dirulaguntza emateko 0400.481.334.54.01 aurrekontu aplikazioaren kargura urteko jarduerak aurrera eramateko beharrezko materiala finantzatzen laguntzeko.

Balantzea honako hauxe da:

GASTUAK		SARRERAK	
Materiala (buztina, esmalteak, pintzelak, tornetak, tornuaren alokairua)	28.670,00€	Bazkideen kuotak	1.080,00€
Tornua	1.700,00€	Haurren ikastaroak	6.499,00€
		Helduen ikastaroak	21.791,00€
		Eskoriatzako Udala	1.000,00€
		GUZTIRA	30.370,00€
GUZTIRA	30.370,00€		

Ematen den dirulaguntzaren banaketa gutxi gorabeherakoa da eta likidazioa egiteko unean aldatu egin ahalko da, benetan egin diren ekintzen eta benetan izan diren gastuen arabera.

HIRUGARRENA. BUZTIN ATE ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

1. Dirulaguntza emateko arrazoia eragin duten baldintzak bete direla justifikatzea.
2. Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako.
3. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.
4. Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketan egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaien informazio guztia ematea.
5. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortuz gero, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, diru-funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
6. Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino



lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.

7. EUSKARAREN ARLOAN

“Buztin Ate” elkarteak Eskoriatzako euskararen normalizazioan urratsak emateko konpromisoa hartzen du. Horretarako, ikasturte honetan honako hauek beteko ditu:

Monitoreak: LHko haurrekin lan egingo duten entrenatzaile guztiak bere lana euskaraz egiteko gai izango dira. Gaintzeko saioei begira ere, monitore berriak hartzerakoan EAEko bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten dakitenak aukeratzeko neurriak hartuko dira.

Tailerrak: LHko haurren saioak euskara hutsean izango dira. Gainerakoetan, ahalegina egingo da hartzaileen arabera posible denean saioak euskaraz emateko.

Idatzizkoak: idatzizko komunikazioak (gurasoentzako gutunak, kartelak, sare sozialak...) euskaraz edo ele bitan egingo dira. Ele bitan izango badira, beti emango zaio euskarari lehentasuna.

Ahozkoa: herritarrei begirako ahozko komunikazioetan (hitzaldi, lehiaketa, etab.) euskara erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko asmoa badago, euskarak izango du lehentasuna.

8. Jarduerarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.
9. Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon zehaztapenak betetzea.
10. Elkarteak, jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko da, horretarako Kultura batzordean eta alde zuzenetik jardueraren iragarki-kartelaren eredu bat aurkeztu beharko da.
11. Jarduera eta ikuskizun publikoen antolatetari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu daitezkeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.

Elkartea joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitezkeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagungarritzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera zuzen justifikatuta egonda, beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako proiektu eta jardueren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak inolako zalantzarik gabe.

Gastuak diruz lagungarri izateko arau orokorrak hiru printzipio ditu:

- Gastuak diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzun behar dio.
- Gastuaren kostea ezingo da izan merkatukoarena baina handiagoa.
- 2026ko ekitaldiaren barruan egin beharko da.

Beste batzuen kaltetan gabe, diruz lagungarri honako ekintza hauek joko dira:

- Buztingintza sustatzeko ekintzak.
- Jarduerak ezagutzera emateko eta horiek iragartzeko eta propaganda.
- Jarduerak estaliko dituzten aseguruak.
- Kanpoko zerbitzuak, horiek kontratatzea beharrezkoa denean proiektua gauzatzeko.

(*) Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauko baldintzak betetzen ez badituzte.



BOSGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK.

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain-finantzaziorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK.

Ordainketa modu honetan egingo da:

% 60a ondorengo dokumentazioa digitalki aurkeztutakoan eta hitzarmen hau sinatu ondoren:

- 2026ko jarduera programa.
- Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- Dirulaguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

Gainerako % 40a, organo eskudunak dirulaguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 7.Baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Justifikatzeko modua KONTU SINPLE JUSTIFIKATU bidez izango da.

2026ko abenduaren 31 baino lehen, posible bada lehenago, eta justifikazio ondorioetarako, BUZTIN ATE BUZTINGINTZA ELKARTEAK ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du Udaleko Erregistro Orokorrean:

1. Dirulaguntza eskaera orria.
2. Elkartearen jarduera osoaren memoria.
3. Hizkuntza datuak. 2026.
4. Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
5. Diruz lagundutako jardueran izandako sarreren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
6. Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
7. Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
8. Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru



laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
- Elkarreak jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

*Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa epe barruan ez aurkezteak kitatzeko gelditzen den dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du bestelako tramiterik egin beharrik gabe, eta baita ere, Udaleko dagokion unitate administratiboak ofizioz hastea ordaindutako diru laguntzen aurrerapena itzultzeko espedientea.

Era berean, aurkeztutako justifikazioari buruzko argibideak behar izanez gero edo dirulaguntza kudeatzen duen departamenduak egin beharreko txosten teknikoan gabeziak antzematen badira, eta gabezia horiek hasiera batean emandako dirulaguntzaren eta azken kitapena egiteko proposamenaren artean doitu beharra edo desbideraketa esanguratsua eragiten badute, dagokion udal erabakia hartu baino lehen laguntza kudeatzen duen departamenduak 7 egun naturaleko epea emango du aipatutako gabeziak konpondu ahal izateko edo egoki iritzitako azalpenak emateko edo justifikazioak aurkezteko. Hori guztiori, azkenean har daitezkeen udal erabakien aurka bidezko diren errekurtsioak aurkeztearen kaltetan gabe.

ZORTZIGARRENA.- BUZTIN ATE BUZTINGINTZA ELKARTEAK HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK.

- BUZTINGINTZA ARLOAN. Erantzun zibileko aseguruia izatea antolatutako buztingintza jardueri aurre egin ahal izateko. Aseguruak, gutxienez, 300.000 €-ko estaldura izan behar du. Hitzarmen honen helburu den programaren funtzionamenduaren ondorioz pertsonen eta ondasunen aurka gerta daitekeen edozein gorabehera estali beharko du aseguruak, eta hitzarmena sinatu baino lehen polizaren originala edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Buztingintza jarduerak behar bezala antolatzea, partehartzaileen segurtasuna bermatuz.
- EUSKARAREN ARLOAN. Hitzarmen honen hirugarren baldintzan ezarritako konpromisoak betetzea.
- KUDEAKETA ARLOAN. Diru-laguntzen helburua fiskalizatzeko lanetan Udalak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako edozein informazio eman beharko du.
- Hitzarmen honen hirugarren baldintzan ezarritako konpromisoak betetzea.
- KOMUNIKAZIO ARLOAN. Hitzarmen honen hirugarren baldintzan ezarritako konpromisoak betetzea.

BEDERATZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:



- Udalaren aldetik: Garapen Jasangarriko zinegotzia edo berak eskuordetutako pertsona.
- BUZTIN ATE BUZTINGINTZA ELKARTETIK: Olatz Pagalday Ruiz de Eginu.

HAMARGARRENA.- INDARRALDIA.

Hitzarmen hau hitzarmena sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2026ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

HAMAIKAGARRENA.- SUNTSIPENA.

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

HAMABIGARRENA.- IZAERA.

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ALKATEA:

BUZTIN ATE BUZTINGINTZA ELKARTEA:

Lorea Uribe-Etxebarria Gorostiza

Buztinate elkartearen ordezkaria



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026MDIR0001-Hitzarmena/Convenio (ESKORIATZAKO UDALA)

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2026/04/24 10:49:47